

## EPAITZA:

Aurreko guztia kontuan izanik, Arbitraje Batzordearen Osoko Bilkurak erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Uraren lege-proiektua –hori da eskumen-arazo pilatuen gaia, eta arazo horiek dira, bestalde, erabaki honen gaia– behar bezala egokitzen zaio Autonomia Estatutuan ezarritako eskumen-banaketari. Lege-proiektu horrek, bestalde, aldatu egiten du eskumenen sistema, baina aldaketa horrek babes nahikoak du proiektuak hirugarren xedapen gehigarrian egindako aldaketetan; salbuespena egin behar da, ordea, 7.q, 36 eta 37.3. artikuluei dagokienez: artikulu horiek lurralte historikoek eskumenak ukitzen dituzte, Lurralde Historikoen Legean beharrezko aldaketarik egin gabe, lehenengo zuenbide-oinarrian azaldutakoa bezalako babesik gabe.

Ebazpen hau alderdiei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Erabaki hau hartu dute batzordeko kideek, eta sinatu egiten dute, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut.

## FALLO:

En atención a todo lo expuesto, el Pleno de la Comisión Arbitral

## HA DECIDIDO:

Que el Proyecto de Ley de Aguas objeto de las cuestiones de competencia acumuladas que son objeto de la presente decisión, se adecua a la distribución de competencias establecida en el Estatuto de Autonomía; asimismo, modifica el sistema competencial, aunque tal modificación encuentra amparo suficiente en los cambios que introduce con su Disposición Adicional Tercera, salvo en lo que respecta a los artículos 7.q, 36 y 37.3, preceptos que afectan a competencias de los Territorios Históricos, sin la pertinente modificación de la Ley de Territorios Históricos, todo ello en los términos recogidos en el Fundamento Jurídico Primero.

La presente Resolución se notificará a las partes y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco. Lo acuerdan los componentes de la Comisión que la suscriben y de la cual yo, el Secretario, doy fe.

**INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA**
**903**

33/2005 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzkoa.

Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea aldatzen duenak, bigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, aipaturiko legeak xede dituen merkataritzagune handietako saltokiak irekitzeko eta ixteko ordutegiak antolatzeko arauak eman ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoak merkataritza-arloan dituen eskumenak baliatuz eta euskal merkataritza-sektoreko eragileei aldez aurretik kontsultatuta, betiere lehia askearen eta leialaren printzipioei jarreraiki. Gainera, ordutegi orokorraren gehieneko mugak ezarriko direla dio, behar den lurralte-oreka eta dauzen merkataritza-egituren garapena bermatuz.

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO**
**903**

DECRETO 33/2005, de 22 de febrero, de horarios comerciales en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Ley 7/2000, de 10 noviembre, de modificación de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, establece en su Disposición Adicional Segunda que el Gobierno Vasco en el ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de comercio, previa consulta a los agentes del sector comercial vasco, podrá dictar normas de ordenación de los horarios para la apertura y cierre de los locales comerciales correspondientes a los grandes establecimientos a los que se refiere la referida ley, de acuerdo con los principios de la libre y leal competencia. Además, dice que se establecerán los límites máximos del horario global, garantizando el necesario equilibrio territorial y el desarrollo de las estructuras comerciales existentes.

Bestalde, aipaturiko legearen 13. artikuluaren 2. idatz-zatiak ezartzen duenez, merkataritzagune handitzat hartzeko txikizkako merkataritzaguneek bete behar dituzten baldintzak erregelamendu bidez ezarri dira, jendaurreko salmentarako duten azaleraren eta dauden edo egongo diren udalerriak duen biztanle-kopuruaren arabera ezarri ere. Idatz-zati horretan xedatutikoa garatuz, merkataritzagune handiak ezarri, aldatu eta handitzeko martxoaren 27ko 58/2001 Dekretua onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak; dekretu horretan, txikizkako merkataritzaguneak ezartzearen ondorioz horiei aplikatzekoak zaizkien eskakizunak aplikatzeko merkataritzagune jakin batzuek bete behar dituzten baldintzak ezartzen dira.

Azaroaren 10eko 7/2000 Legearen —Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea aldatzen duena— bigarren xedapen gehigarri horretan xedatutikoa garatuz, dekretu honek merkataritzagune handien merkataritza-ordutegiak arautzea du helburutzat, eta, dekretu horretan xedatutikoa dagokionez, txikizkako saltokiek merkataritzagune handitzat hartu ahal izateko bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu horretarako, lege horretan oro har eta aplikatzeko den gainerako araudian ezarritakoa alde batera utzi ga-be.

Euskal merkataritza-sektoreko eragileei aldez aurreik kontsultatuta eta batez ere honako hauek kontuan hartuta egin da araudia: merkataritza-banaketak gaur egun EAEko ekonomian duen zeregin estrategikoa eta hori izaten ari den modernizazio eta eraldaketa prozesu bizia; izan ere, prozesu horren ondorioz, merkataritza-egitura eta horren adierazpide guztiak sakon aldatzen ari dira.

Merkataritza-egituren modernizazio eta eraldaketa hori ekonomiaren globalizazio-prozesuaren zati bat da; prozesu horren ondorioz, kontsumitzaileak jokabidea aldatzen ari dira eta merkatuak kontrolatzeko estrategia berriak garatzen ari dira. Banaketa-merkatu horrentzat saltokiek irekita eman ditzaketen egunen eta orduen kopuruak duen garrantzia eta eraginaz jabeturik, egokitza eman da alderdi hori arautzea; nolanahi ere, araudi horrek kontuan izan behar du beharrezko dela honako hauek bermatzeko baldintzak sortzea eta aurreikustea: produktuak kalitate, aukera eta prezio baldintza hoberenetan eskaintzea, bai eta horiek dauden balibideetara —denborari eta biztanleriaren hornidurari dagozkienak— egokitzea ere.

Era berean, hurbileko hiri-merkataritza izenekoak Erkidego honetan duen garrantzia izan du kontuan proposaturiko araudiak; izan ere, merkataritza-mota hori funtsezkoa da gure bizimoduan eta gure gizarte-ereduan, eta horregatik, behar diren neurriak hartu behar ditugu Erkidegoko herri guztietan merkataritza-ekipamendu egokia izatea ziurtatzeko eta enpresen arteko lehia ere bermatzeko, inork merkatua mendera ez dezan.

El apartado 2 del artículo 13 de la citada Ley, por su parte, prevé que reglamentariamente se establecerán las condiciones que los establecimientos destinados al comercio minorista habrán de reunir para ser considerados grandes establecimientos comerciales, en atención a su superficie de venta al público y a la población del término municipal en que se ubiquen o hayan de ubicarse. En desarrollo de lo dispuesto en este apartado, el Consejo de Gobierno aprobó el Decreto 58/2001, de 27 de marzo, sobre implantación, modificación y ampliación de grandes establecimientos comerciales, en el que estableció las condiciones que debían cumplir determinados establecimientos de comercio minorista para que les resultaran aplicables las exigencias derivadas de su implantación.

El presente Decreto, en desarrollo de lo dispuesto en la referida Disposición Adicional Segunda de la Ley 7/2000, de 10 noviembre, de modificación de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, pretende regular los horarios comerciales de los grandes establecimientos comerciales, estableciendo para ello, a los solos efectos de lo dispuesto en el mismo, las condiciones que deben reunir los establecimientos de venta al por menor para ser considerados grandes establecimientos, sin perjuicio de lo establecido en dicha ley con carácter general y en la demás normativa que resulta aplicable.

La regulación se ha efectuado, previa consulta con los agentes del sector comercial vasco y teniendo en cuenta, fundamentalmente, el papel estratégico que hoy en día desempeña la distribución comercial en la economía de la CAPV y el intenso proceso de modernización y transformación al que está sometida, lo que está generando profundos cambios en la estructura comercial y en sus distintas manifestaciones.

Esta modernización y transformación de las estructuras comerciales forma parte de un proceso de globalización de la economía, que está originando cambios en las pautas de comportamiento de los consumidores y el desarrollo de nuevas estrategias para el control de los mercados. Siendo conscientes de la importancia e influencia que para este mercado de distribución tienen los días y horas de apertura de los locales comerciales, se plantea la oportunidad de su regulación, la cual, en todo caso, debe tener en cuenta la necesidad de crear y prever las condiciones que garanticen tanto la oferta de productos en condiciones óptimas de calidad, variedad y precio, como su adecuación a las disponibilidades temporales y de aprovisionamiento de la población.

Al mismo tiempo, la regulación propuesta ha tenido en cuenta la importancia, en esta Comunidad del llamado comercio urbano de proximidad, fundamental en nuestro modo de vida y en nuestro modelo de sociedad, que nos exige adoptar las medidas necesarias para garantizar la existencia de un equipamiento comercial adecuado en todos los municipios de la Comunidad, además de garantizar la competencia entre empresas, evitando situaciones de dominio de mercado.

Horri dagokionez, Europako Kontseiluaren 2003/88/EB Arteztaraauak merkataritza-ordutegiak arautzean, besteak beste honako hauek kontuan izateko gomendatzen die estatukideei: kultur, gizarte eta erlijio arloko tradizioak eta herritarren beharrak; era berean, igandeak atseden-egun gisa duen nondik norako soziala onartzeko ere gomendatzen die.

Berme horiek errespetatzearen, dekretu honek Erkidegoko merkataritzaguneek zabalik eman dezaketen gehieneko ordu-kopurua ezartzen du, betiere jarduera horren lan-araudian eta merkataritza-sektoreko langileek aintzat hartuta dituzten eskubideetan sartu gabe, gai horiek gure eskumenen eremutik kanpo baitaude.

Horri jarraiki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridi-koarekin adostasunez, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposaturik, eta Jaurlaritzaren Konseiluak 2005eko otsailaren 22ko bilkuran aldez aurreik eztabaidatu eta onarturik, hau

#### XEDATU DUT:

##### *1. artikulua.*— Aplikazio-eremuia.

1.– Dekretu honetan bilduriko merkataritza-ordutegien araudia merkataritzagune handiei baino ez zaie aplikatuko.

2.– Dekretu honi dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 400 metro koadrotik gora duten jendaurrean saltzeko txikizkako saltokiak dira merkataritzagune handiak.

##### *2. artikulua.*— Merkataritza ordutegi orokorrak.

1.– Aurreko artikuluan definituriko merkataritzagune handiek honako baldintza hauek kontuan izanik eza-rrri ahal izango dute euren merkataritza-ordutegia:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako urteko igande eta jaiegun guztien artean, gehienez ere 8 egunetan, hau da, 8 igande eta jaiegunetan garatu ahal izango dute euren merkataritza-jarduera.

b) Igandeetan eta jaiegunetan gehienez ere 12 orduz egon ahal izango dira zabalik.

c) Merkataritza-jarduera garatzeko, honako jaiegun hauek ez dira lanegunak izango:

Urtarrilaren 1a

Urtarrilaren 6a

Maiatzaren 1a

Abenduaren 25a

Lurralte Historiko bakoitzaren zaindariaren eguna lurralte historiko bakoitzean.

d) Asteko lanegun guztiak kontuan harturik, gehienez ere 72 orduz garatu ahal izango dute euren jardue-ra.

A estos efectos la Directiva del Consejo 2003/88/CE recomienda a los Estados miembros que tengan en cuenta a la hora de regular los horarios comerciales, entre otras materias, las tradiciones culturales, sociales y religiosas, así como las necesidades de los ciudadanos y que reconozcan el carácter social del domingo como día de descanso.

En aras al respeto de dichas garantías, el presente Decreto regula los límites máximos del horario de apertura de los establecimientos comerciales de la Comunidad, sin interferir en la regulación laboral de la actividad y en los derechos reconocidos a los trabajadores del sector comercial, materias éstas que quedan fuera de nuestro ámbito competencial.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de febrero de 2005,

#### DISPONGO:

##### *Artículo 1.*— Ámbito de aplicación.

1.– La regulación de horarios comerciales contenida en el presente Decreto se aplicará exclusivamente a los grandes establecimientos comerciales.

2.– Se entiende por gran establecimiento comercial a los efectos de este Decreto los establecimientos de venta al por menor que cuenten con una superficie de venta al público superior a 400 metros cuadrados ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

##### *Artículo 2.*— Horarios Comerciales Generales.

1.– Los grandes establecimientos comerciales definidos en el artículo anterior podrán establecer su horario comercial teniendo en cuenta las siguientes consideraciones:

a) El número máximo de domingos y festivos en los que podrán desarrollar su actividad comercial no podrá superar los 8 días, del total anual de domingos y festivos establecidos en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) El número máximo de horas de apertura en domingo o festivo será de 12 horas.

c) Serán inhábiles para el desarrollo de la actividad comercial los siguientes festivos:

1 de enero

6 de enero

1 de mayo

25 de diciembre

El día correspondiente a la fiesta patronal de cada Territorio Histórico en los mismos.

d) El horario comercial en el que podrán desarrollar su actividad durante el conjunto de días laborables no podrá superar las 72 horas semanales.

2.- Merkatari bakoitzak finkatuko du zenbat orduz eta zein egunetan garatuko duen bere jarduera, bai eta egun horietan zein ordutan zabaldu eta itxiko duen bere saltokia ere, aurreko puntueta ezarritakoaren arabera.

3.- Saltokiak jendearentzat zabalik egongo diren ordegtiak eta egunak kontsumitzaleek saltokien kanpoaldetik ikusteko moduan jarriko dira erakusgai.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregimen berezirik ez duten eta merkataritza-jarduerari urte naturala hasita dagoenean ekiten dioten merkataritzagune handiek gehienez ere zabaldu ahal izango duten igande eta jaiegun kopurua jarduera hori hasi duten hiruhilekoaren arabera zenbatuko da; hiruhileko bakoitzean 2 egunez zabaldu ahal izango dute.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Arau honetan definituriko merkataritzagune handiek euren jarduera garatu ahal izango duten igande eta jaiegunen gehieneko kopurua Dekretu hau indarrean jarri eta handik aurrera zenbatzen hasiko da 2005. urtean.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliorik gabe geratu dira dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko zein beheragoko xedapen guztiak.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 22an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

2.- Cada comerciante acordará las horas y días en que desarrollará su actividad y el horario de apertura y cierre de su establecimiento en dichos días, conforme a lo establecido en los puntos anteriores.

3.- Los horarios y días de apertura al público se expondrán de modo que resulten visibles para las personas consumidoras desde el exterior de los establecimientos.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El número máximo de domingos y festivos que podrán abrir los grandes establecimientos comerciales que no cuenten con un régimen especial y que inicien su actividad una vez comenzado el año natural se computará, en función del trimestre en el que hayan iniciado tal actividad, a razón de 2 días por trimestre.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El cómputo del número máximo de domingos y festivos en los que los grandes establecimientos definidos en la presente norma podrán desarrollar su actividad comercial durante el año 2005 se iniciará a partir de la entrada en vigor del presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango contradigan lo dispuesto en el presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2005.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.  
La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.